Bizkaiko Foru Aldundiaren __/2018 FORU DEKRETUA, ............aren ...(e)koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsa arautzen duena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2018, de de , por el que se regula el Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundia kezkatuta dago bai nekazaritzarako lurren kontserbazioa eta hobekuntza direla-eta, bai nekazaritzako zein abeltzaintzako ustiategien iraupena dela-eta. Izan ere, gure inguruan lur eskasia dagoenez, ez dago lur nahikorik beren jarduera eredu estentsibo batean eta lurrari lotuta garatzen duten edo garatu nahi dutenentzat. Nekazaritzako ustiategi asko etengabeko ziurgabetasun baterantz abiatu daitezke (bideragarriak izango ote diren), lurralde-oinarri nahikorik ez badaukate.

La conservación y mejora de los suelos agrícolas y el mantenimiento de las explotaciones agrícolas-ganaderas, en un entorno de falta de tierra y escasez de suelo disponible sobre todo para aquellas personas que desarrollan o quieren desarrollar su actividad en un modelo extensivo, ligado a la tierra, constituye un motivo de preocupación para la Diputación Foral de Bizkaia. Muchas explotaciones agrarias podrían verse abocadas a una incertidumbre constante para una razonable viabilidad si no disponen de una base territorial suficiente.

Nekazaritzako ustiategi askok beren lurralde-oinarria handitu nahi dute, eta ekoizpenerako laborantza-lurrak eta larreak gehitu, baina kanpoko erosketa osagarri gehiago egin gabe. Abeltzaintzako ustiategien, baratzezaintzako ustiategien, berotegien edo mahastien tamaina handitzeak berekin ekar dezake ustiategiok ekonomikoki bideragarriak izatea.

Hay muchas explotaciones agrarias que tienen interés en aumentar su base territorial; incorporando tierras de labranza o prados para su producción y tener menos dependencia de compras exteriores complementarias. El aumento de tamaño de las explotaciones ganaderas, hortícolas, invernaderos o viñedo entre otras, puede permitir que estas sean económicamente viables.

Nekazaritzako jardueretan diharduten pertsonek zailtasun asko dituzte erosketaren bidez finkak eskuratzeko, besteak beste, lurraren prezio altuengatik. Gainera, ez dago nekazaritza-ekoizpenerako finkak alokatzeko merkatu eraginkorrik. Gero eta sarriago ikusten dugu egoera hau: jardunean eta finka gehiagoren faltan dagoen ustiategi bat eta, haren ondoan, beste partzela batzuk, landu gabe egoteagatik su-arriskuan edo izurrite eta gaixotasun fitosanitarioak izateko arriskuan daudenak, ezer ekoizten ez dutenak. Landu gabeko finka bat arazoa da gizarte osoarentzat. Aitzitik, landuz gero, finka horrek aberastasuna sor dezake jabearentzat nahiz nekazariarentzat; gainera, nekazaritzako praktika onak erabiliz gero, iraunkorra izan daiteke, ingurumenaren ikuspegitik, gizartearentzat.

Las personas que se dedican a actividades agrarias, tienen muchas dificultades para conseguir nuevas fincas mediante compra, entre otros motivos, por los altos precios de la tierra. Tampoco hay un mercado de alquiler ágil de fincas para la producción agraria. Cada vez con más frecuencia, vemos cómo al lado de una explotación en activo, con interés en ampliar fincas para trabajarlas, hay parcelas en grave situación de abandono con riesgo de incendios o de plagas y enfermedades fitosanitarias, además de no producir nada. Una finca inculta, es un problema para el conjunto de la sociedad. Su puesta en valor puede producir riqueza para el propietario y el agricultor, con el uso de buenas prácticas agrarias siendo medioambientalmente sostenible para la sociedad.

Hala, bada, neurriak ezarri egin behar dira orain arte adierazi diren arazoei aurre egiteko. Horrez gainera, beharrezkoa da emakumeak eta gazteak nekazaritza-sektorera ekartzea eta belaunaldi-aldaketa sustatzea.

Es preciso establecer medidas para hacer frente a los problemas enunciados. Además es necesario promover la incorporación de mujeres y personas jóvenes al sector agrario y el relevo generacional, así como el

Halaber, nekazaritza-sektoreko emakumeen profesionaltasuna bultzatu behar da; emakumeek sektorean jarraitzea eta bilakatzea sustatu behar da baldintza-berdintasunean, eta nekazariak elkarte- edo talde-ekimenetara ekarri behar dira. Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 13. eta 14. artikuluek ezartzen dute lurralde historiko bakoitzean nekazaritza-lurren funts bat sortzea. Nekazaritza-lurren bitartekaritza-bulegoak arduratuko dira nekazaritza-lurren funtsen ondasunak eta eskubideak kudeatzeaz eta administratzeaz, lege horren 15. artikuluak xedatzen duenarekin bat.

reconocimiento profesional, la permanencia y evolución en igualdad de condiciones de las mujeres del sector agrario y la incorporación de los agricultores y las agricultoras a iniciativas de asociación o agrupación. La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, prevé en sus artículos 13 y 14 la creación de Fondos de suelo agrario en cada Territorio Histórico. La gestión y administración de los bienes y derechos de los bienes y derechos de estos fondos de suelo corresponderá a las oficinas de intermediación e intervención de suelo agrario que se constituyan, según dispone el siguiente artículo 15.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 9ko 28/2010 Foru Dekretua onartu zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa sortu zuena. Ondoren, martxoaren 5eko 32/2013 eta abenduaren 3ko 167/2013 foru dekretuek aldatu zuten 28/2010 Foru Dekretu hori.

En este marco se aprobó el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 28/2010, de 9 de marzo, por el que se crea el Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia, modificado posteriormente mediante Decreto Foral 32/2013, de 5 de marzo y 167/2013, de 3 de diciembre.

Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuak, berriz, esku-hartzeko neurri publikoak ezartzen ditu (hain zuzen, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen II. tituluan ezarritakoak), nekazaritza-azalera erabilgarrien abandonua eta galera saihesteko eta nekazaritza-jarduerarako lurren etengabeko erabilera egokia sustatzeko.

Mediante Decreto 193/2012, de 2 de octubre, de conservación y fomento del uso del suelo agrario en la Comunidad Autónoma del Euskadi, se establecen medidas de intervención pública previstas en el Titulo II de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria con la finalidad de evitar el abandono y la perdida de superficies agrarias útiles y de promover un uso continuado y adecuado de dichos suelos para la actividad agraria, que inciden directamente en esta materia.

Une honetan, arautegi honen aplikazioan lortutako esperientzian oinarrituta, 8. artikulua.— Adjudikazio araubidea delakoan jasotako balorazio-irizpideak aldatu behar direla uste dugu. Baremazioan erabil daitezkeen faktore berriak sartu dira, foru dekretu hau dela-eta aurkez daitezkeen eskabideak ahalik eta modurik zuzenean ebaluatu ahal izateko. Gainera, eskatzaileen hainbat profil edo ezaugarri jasotzen dira eta loteen banaketari heldu ahal izateko gutxieneko puntuazio ezberdinak ezartzen dira. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa arautzen duena uztailaren 5eko 122/2016 Foru Dekretua aldatua izan denez gero, 12ko 95/2017 Foru Dekretuaren bidez, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsa arautzen duen araubide juridikoa jasotzen duen testu bakarrean onetsiko da.

En el momento actual, en función de la experiencia en la aplicación de esta normativa, se considera necesario modificar los criterios de valoración recogidos en el Artículo 8.— Régimen de adjudicación Se incorporan nuevos factores baremables para evaluar de la forma más justa posible las solicitudes que se presenten contra este Decreto Foral. Por otro lado se incluyen dististos perfiles de personas solicitantes y se establecen distintas puntuaciones mínimas para acogerse al reparto de los lotes. Al mismo tiempo, dado que el Decreto Foral 122/2016, de 5 de julio, regulador actual del Fondo de Suelo Agrario ha sido ya modificado por Decreto Foral 95/2017 de 12 de julio, se procede a la aprobación de un único texto que contenga el régimen jurídico regulador del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak Nekazaritza Lurren Funtsa sortzeko eskumena du, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, abenduaren 23ko 17/2008 Legean adierazitako moduan.

Es competente la Diputación Foral de Bizkaia para la creación y gestión del Fondo de Suelo Agrario de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.b.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en los términos contenidos en la Ley 17/2008, de 23 de diciembre.

Foru dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

El presente Decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17 eta 64. artikuluek alor honetan emaniko eskumenak erabiliz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak proposatu eta Foru Aldundiak 2018 ...........aren ...(e)ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

En su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64 de la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural y previa deliberación de la Diputación Foral en su reunión de de de 2018.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO

1. artikulua. *Xedea*

Foru dekretu honen helburua Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsa berriro arautzea da, bai eta funts horri atxikiko zaizkion ondasun eta eskubideen kudeaketa eta administrazioa araupetzea ere.

Artículo 1. *Objeto*

Es objeto del presente Decreto Foral la regulación del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia y de la gestión y administración de los bienes y derechos que se adscriban a este Fondo.

2. artikulua. *Helburuak eta xedeak*

1. Foru dekretu honen helburua da nekazaritzako ustiategietan —lehendik daudenetan edo sortu berrietan— nekazaritzan jardun nahi duten guztiek lurra eskuratzeko beharrezko diren baldintzak aseguratzea, eta ustiategien estentsifikazioa sustatzea.

2. Foru dekretu honek xede hauek ditu:

a) Nekazaritzako ustiategien jarraipena aseguratzea, landa-

Artículo 2. *Objetivos y finalidad*

1. El objetivo de este Decreto Foral es el aseguramiento de las condiciones necesarias para facilitar tierra a cuantas personas deseen dedicarse a la agricultura en explotaciones agrarias en base a tierra, existentes o de nueva creación, facilitando la extensificación.

2. El presente Decreto Foral tiene como finalidad:

a) Asegurar la continuidad de las explotaciones agrarias,

inguruneko garapen ekonomikorako oinarrizko tresna gisa eta ustiategian familiaren ahalik eta kide gehienek jarduten jarraitzeko tresna gisa.

b) Emakumeak eta gazteak nekazaritza- eta elikadura-sektorera ekartzera, bai eta elkarte- edo talde-ekimenetara ere, sustatzea.

c) Honako hauek bultzatzea: nekazaritza- eta elikadura-sektoreko emakumeen profesionaltasuna aintzat hartzea; emakumeek sektorean jarraitzea eta bilakatzea, baldintza-berdintasunean, eta elkarte- edo talde-ekimenetara ekartzea.

d) Ustiategien dimentsionamendu estrukturala sustatzea eta, kasuaren arabera, babestea, bideragarritasun ekonomikoari laguntzeko.

e) Ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorra den nekazaritza baten garapena sustatzea, bai eta nekazaritzako ustiategien bideragarritasun ekonomikoa handitzeko balio izango duen nekazaritzaren trantsizio ekologikoa ere. — Esku hartzea nekazaritzarako egokiak diren lurrei balioa emateko.

f) Nekazaritzako azalera erabilgarria berreskuratzea edo/eta haren galera moteltzea.

g) Ustiategien lurralde-oinarria hobetzea eta handitzea.

h) Abandonu-egoera larria, su-arriskua, izurriteak, gaixotasun fitosanitarioak eta kalteak mugakideei sortzea saihestea nekazaritzarako egokiak diren lurretan.

3. artikulua. *Aplikazio-eremua*

Foru dekretu honetan ezarritako xedapenak aplikatu beharrekoak izango dira Bizkaiko Lurralde Historiko osoko landa-finkei, bereziki, EAEko landa-espazioko lurralde-antolamenduko plan sektorialetan balio handikotzat jotako lurrean dauden finkei.

4. artikulua. *Nekazaritzako Lurren Funtsa*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsari atxikita geratuko dira foru dekretu honetan zehazten diren erabilerei lotutako landa-finka guztiak, haien titulartasuna dena delakoa.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsean honako hauek sartu ahal izango dira:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauarekin (Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondareari buruzkoa da foru arau hori) eta garapen-xedapenekin bat atxikitzen dizkion landa-ondasunak eta landa-eskubideak.

como instrumento básico del desarrollo económico en el medio rural y como instrumento para la pervivencia del máximo número de personas en la agricultura familiar.

b) Promover la incorporación de mujeres y personas jóvenes al sector agrario y alimentario y a las iniciativas de asociación o agrupación.

c) Promover el reconocimiento profesional, la permanencia y evolución en igualdad de condiciones de las mujeres del sector agrario y alimentario, así como su incorporación a las iniciativas de asociación o agrupación.

d) Potenciar y preservar, en su caso, un dimensionamiento estructural de las explotaciones que coadyuve a su viabilidad económica.

e) Promover el desarrollo de una agricultura medioambientalmente sostenible, así como la transición agroecológica, que a su vez servirá para aumentar la viabilidad económica de las explotaciones agrarias. — Intervenir para poner en valor las tierras con aptitud agraria.

f) Recuperar y/o frenar la pérdida de superficie agraria útil.

g) Mejorar y ampliar la base territorial de las explotaciones.

h) Evitar la grave situación de abandono, riesgo de incendios, plagas y enfermedades fitosanitarias y daños a colindantes en alguna tierra con aptitud agrícola.

Artículo 3. *Ámbito de aplicación*

Las disposiciones establecidas en este Decreto Foral serán de aplicación respecto de las fincas rústicas en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, especialmente en las fincas incluidas en suelo calificado de alto valor agrológico en los Planes de Ordenación Territorial Sectorial del espacio rural vasco.

Artículo 4. *Fondo de Suelo Agrario*

1. El Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia se configura como un instrumento en el que figurarán adscritas todas las fincas rústicas vinculadas a los destinos especificados en este Decreto Foral, independientemente de su titularidad.

2. Podrán formar parte del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia:

a) Los bienes y derechos de naturaleza rústica que la Diputación Foral de Bizkaia adscriba al departamento de Sostenibilidad y Medio Natural par su integración al mismo, conforme a la Norma Foral 3/2006, de 16 de noviembre, de Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia y disposiciones de desarrollo.

b) Euskal Autonomia Erkidegoak abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikitzen dizkion landa-ondasunak eta landa-eskubideak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoak, udalek edo beste edozein erakunde publikok zein pribatuk erabiliak izateko eta haien aprobetxamendua egiteko lagatzen dituzten landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak, edo haien gaineko eskubideak.

d) Titularrek erabiliak izateko eta haien aprobetxamendua egiteko lagatzen dituzten landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak, edo haien gaineko eskubideak.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsaren eginkizun nagusia izango da erabili gabeko nekazaritza-azalera erabilgarriak mobilizatzea, ustiategiak berriro dimentsionatu ahal izateko.

4. Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoak funtsari atxiki zaizkion ondasun eta eskubideen gaineko erabilera- eta aprobetxamendu-eskubideak izango ditu, ondasun-eskubideok kudeatzeko eta haien adjudikazio-kontratuak formalizatzeko.

5. artikulua. *Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoa*

1. Foru-dekretu honetan ezarritako helburuak betetzeko eta, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsaren ondasun eta eskubideak administratzeko, Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulego izendatzen da Landa Garapenerako Zerbitzua, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikia.

2. Landa Garapenerako Zerbitzuak helburu nagusi bat izango du foru dekretu honen esparruan: Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsean sartutako ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu, haien erabilera eta aprobetxamenduari dagokienez. Kudeaketa-gomendioak hitzartu ahal izango dira Basalan Akziozko Baltzua, ABrekin (Bizkaiko Foru Aldundiaren bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa den aldetik), Landa Garapenerako Zerbitzuak esleitzen dituen loteen eta sustatzen diten proiektuen errentak eta kanonak kudeatzeko, hala nola, lurrak hobetzea eta egokitzea, foru-dekretu honen 9.4 artikuluan aurreikusten den kontuaren kargura.

Zehazki, honako eginkizunak izango ditu Landa Garapenerako Zerbitzuak:

a) Nekazaritzako lurren funtsaren eskaria eta eskaintza

b) Los bienes y derechos de naturaleza rústica que la Comunidad Autónoma del País Vasco le adscriba de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 20 y 21 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre.

c) Las fincas rústicas o explotaciones agrarias, o derechos sobre las mismas, cedidas para su uso y aprovechamiento por la Comunidad Autónoma de Euskadi, los Ayuntamientos o cualquier entidad pública o privada.

d) Las fincas rústicas o explotaciones agrarias, o derechos sobre las mismas, cedidas para su uso y aprovechamiento por sus titulares.

3. El Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia tendrá como función fundamental alcanzar la movilización de las superficies agrarias útiles en desuso, favoreciendo de este modo el redimensionamiento de las explotaciones.

4. La Oficina de Intermediación e Intervención de Suelo Agrario tendrá, sobre los bienes y derechos adscritos, el derecho de uso y aprovechamiento de los mismos, para su gestión y formalización de los contratos de adjudicación.

Artículo 5. *Oficina de Intermediación e Intervención de Suelo Agrario*

1. Para el cumplimiento de los fines establecidos en este Decreto Foral y, en concreto, la administración de los bienes y derechos del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia, se constituye el Servicio de Desarrollo Rural en Oficina de Intermediación e Intervención de Suelo Agrario, adscrita al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

2. El Servicio de Desarrollo Rural tendrá como objetivo principal, en el ámbito de este Decreto Foral, la gestión de los bienes y derechos incorporados al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia en cuanto a su uso y aprovechamiento, Podrían establecerse encominendas de gestión con Bizkaiko BASALAN Akziozko Baltzua, A.B. (S.A.), como medio propio y servicio técnico de la Diputación Foral de Bizkaia para la gestión de las rentas y canón de los lotes adjudicados y aquellos proyectos promovidos por el Servicio de Desarrollo Rural, como pueden ser la mejora y acondicionamiento de los terrenos con cargo a la cuenta contemplada en el artículo 9.4 del presente Decreto Foral.

En particular, las funciones del Servicio Desarrollo Rural serán las siguientes:

a) Captación de la demanda y oferta del fondo del suelo

hautematea

b) Partzelen ebaluazio agronomikoa egitea

c) Nekazaritzako Lurren Funtseko loteak atxikitzea

d) Eskabideak eta dokumentazioa erregistroan jasotzea

e) Eskabideak kudeatzea

f) Eskabidea ebaluatzeko prozesua

g) Loteak esleitzeko proposamena

h) Kontratuen kudeaketa

i) Esleituriko loteen kontrola eta jarraipena

j) Erregistroak etengabe eguneratzea

k) Dokumentazioa eskatzea eta kudeatzea

Landa Garapenerako Zerbitzuak, ofizioz diharduela —Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko Legearekin bat—, erregistro eguneratu bat izan dezake, udalerrien arabera antolatua; bertan, datu hauek adieraziko ditu: Bizkaiko Lurralde Historikoan gutxiegi erabiltzen diren lurren kokalekua, titulartasuna eta erabilera.

3. Gainera, Landa Garapenerako Zerbitzuari agintzen zaio eskualde bakoitzean ezar dezala nekazaritzarako lurraren eskaintzak biltzeko eta nekazaritzarako lurraren eskaeraren publizitatea egiteko zerbitzu bat. Halaber, aholku emateko eta izapideak egiteko zerbitzuak eskainiko ditu, partikularren arteko errentamendu-kontratuak eta landa-finken trukatzeak burutzeko.

Horrez gainera, Landa Garapenerako Zerbitzuari agintzen zaizkio abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 17. artikuluan ezarritako helburuetako bat duten landa-finken borondatezko zein nahitaezko trukatze-prozesuak bideratzeko lanak.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsaren ondasun eta eskubideei lotutako informazioa lortzeko eta eskaerak aurkezteko, eskualdeko nekazaritza-bulegoetara edo Landa Garapenerako Zerbitzura jo behar da.

Horrez gainera, Landa Garapenerako Zerbitzuak gutxiegi erabilitakotzat jotako lurraren erabileraren jarraipena egingo du, eta funtsari aldi baterako lagatako lurra kudeatuko, 17/2008 Legearen 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

5. Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmenak eginez, landa-garapenerako elkarteek eginkizun nagusi bat gauzatuko dute: Nekazaritzako Lurren Funtsari atxiki ahal zaizkion lurrak eta horretan interesa izan lezaketen jabeak hautematea. Halaber, interesa duen edonork jo ahal izango du elkarteetara funtsari buruzko kontsultak egiteko; izan ere, elkarteetan informazio guztia izango dute, hala deialdiko loteei buruzkoa nola deialdiari buruzko beste hainbat alderdiri buruzkoa. Elkarte horiek helaraziko dizkiote, hain zuzen ere, Landa Garapenerako Zerbitzuari

agrario

b) Evaluación agronómica de los parcelas

c) Adscripción de los Lotes en el Fondo del suelo agrario.

d) Registro de solicitudes y documentación

e) Gestión de las solicitudes

f) Proceso de valoración de solicitudes

g) Propuesta de adjudicación de los lotes

h) Gestión de los contratos

i) Control y seguimiento de los lotes y adjudicados

j) Registros permanentes actualizados

k) Solicitud y gestión de la documentación

El Servicio de Desarrollo Rural, actuando de oficio conforme a la Ley de Política Agraria y Alimentaria, podrá mantener un registro actualizado indicando la procedencia de los terrenos, su titularidad y destino de aquellos terrenos infrautilizados que se encuentren en el Territorio Histórico de Bizkaia, clasificados por términos municipales.

3. Se encomienda, además, al Servicio de Desarrollo Rural el establecimiento de servicio de recogida de ofertas y publicidad de demanda de suelo agrario en cada comarca. Igualmente, ofertará servicios de asesoría y tramitación para la conclusión de contratos de arrendamientos y permutas de fincas rústicas entre particulares.

Así mismo se encomienda al Servicio de Desarrollo Rural los trabajos conducentes a favorecer los procesos de permutas voluntarias y permutas forzosas de fincas rústicas en los supuestos contemplados en el artículo 17 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre.

4. La información y presentación de solicitudes relativas a bienes y derechos del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia y demás funciones del apartado anterior, se deberá realizar en el Servicio de Desarrollo Rural.

El Servicio de Desarrollo Rural realizará el seguimiento de la utilización del suelo declarado como infrautilizado y gestionará el suelo incorporado al Fondo en cesión temporal de uso conforme a los artículos 20 y 21 de la Ley 17/2008.

5. Mediante los correspondientes Convenios de Colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia las Asociaciones de Desarrollo Rural ejercerán por un lado la función principal para la captación de personas interesadas y captación de posibles tierras que se puedan adscribir en el Fondo del Suelo Agrario, y así mismo toda persona interesada se podrá dirigir a dicha Asociación para posibles consultas respecto al Fondo, en las cuales se dispondrá de toda la información respecto de los lotes de la convocatoria y otras cuestiones respecto de misma. Serán estas

urtean zehar erregistraturiko kezka, eskari eta eskaintza guztiak. Deialdiei dagokienez, Landa Garapenerako Zerbitzuan formalizatu beharko dute eskatzaileek eskabide ofiziala, baina kasuan kasuko elkarteari eskatu ahal izango diote eskabidea betetzen laguntzeko. Hori guztia kontuan hartuta, honako eginkizun nagusi hauek jaso behar dira sinatuko den hitzarmenean:

a) Eskualdeko eskaria hautematea

b) Beren lurrak Nekazaritzako Lurren Funtsari atxikitzeko interesa duten jabeak hautematea.

c) Jende guztiari arreta eskaintzea eta informazio egokia ematea.

asociaciones las que trasladen al Servicio de Desarrollo Rural todas las inquietudes, demandas y ofertas registradas durante todo el año. En relación a las convocatorias, el solicitante deberá formalizar la solicitud oficial en el Servicio de Desarrollo Rural, pero podrá solicitar apoyo para el cumplimiento de la solicitud en la Asociación correspondiente. Teniendo en cuenta lo anterior, estas serían las principales funciones a recoger en el convenio a suscribir:

a) Captación de la demanda en la comarca

b) Captación de personas propietarias interesadas en adscribir los terrenos en el Fondo del Suelo Agrario.

c) Atención a toda persona ofreciendo información pertinente.

6. artikulua. *Nekazaritzako Lurren Funtsari landa-finkak aldi baterako lagatzea*

1. Erakunde publikoek —ondareari buruzko beren araudiarekin bat— zein partikularrek beren titulartasuneko landa-finken erabileraren eta aprobetxamenduaren kudeaketa laga ahal izango diote Bizkaiko Foru Aldundiari —zeinak berariaz onartu beharko baitu aurretik—, finka horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsean sartzeko. Lagapena Basalan SA sozietatearen bidez egingo da, hura baita Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoa.

2. Funtsean sartu aurretik, Landa Garapenerako Zerbitzuak partzelaren ebaluazio agronomikoa egingo du, eta Basalan SA sozietateak egin beharreko hobekuntzak proposatuko ditu.

3. Landa-lur baten kudeaketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsaren alde lagatzeak berez dakar Bizkaiko Foru Aldundiari baimena ematea finka horren erabilera eta aprobetxamendua berak zuzenean edo hirugarren batzuei lagatzeko bost urterako; hargatik eragotzi gabe foru dekretu honen 9. artikuluan aipatzen den baimena.

4. Beren titulartasuneko finkak Nekazaritza Lurren Funtsari lagatzeko interesatuta dauden pertsona edo erakunde publiko zein pribatuek idazki bat aurkeztu dute Landa Garapen Zerbitzuan, haien jabetzari eta egoera fiskal eta juridikoari buruzko datuak zehaztuta.

Finka horiek Nekazaritza Lurren Funtsaren barruan sartu aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako lagapena onartzen duela dioen erabakia onetsi beharko du, foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera eta, hala badagokio, zehaztutako baldintza berezietan.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren eta nekazaritzarako erabil daitezkeen jabari publikoko ondasunei dagokienez, haien erabilera eta ustiapena Landa Garapenerako Zerbitzuari atxikiz lagako dira, Aldundiko organo eskudunaren ebazpen baten bidez, Ondareari buruzko Foru Arauaren 62. artikuluan eta hurrengoetan

Artículo 6. *Cesión temporal de fincas rústicas al Fondo de Suelo Agrario*

1. Las Entidades Públicas, de acuerdo con su legislación en materia de patrimonio, así como los particulares, podrán ceder a la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Servicio de Desarrollo Rural en cuanto Oficina de Intermediación e Intervención de Suelo Agrario, previa aceptación expresa por parte del mismo, la gestión del uso y aprovechamiento de las fincas rústicas de las que sean titulares para su integración en el Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Previamente a su integración en el Fondo el Servicio de Desarrollo Rural realizará la evaluación agronómica de la parcela y la propuesta de mejoras necesarias.

3. La cesión de la gestión de una finca rústica a favor del Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia conlleva la autorización para que la Diputación Foral de Bizkaia, directamente, ceda su uso y aprovechamiento a terceras personas por un período de cinco años, sin perjuicio del consentimiento a que hace referencia el artículo 9 del presente Decreto Foral.

4. Las personas o entidades públicas o privadas interesadas en la cesión de fincas de su titularidad al Fondo de Suelo Agrario presentarán un escrito al Servicio de Desarrollo Rural especificando los datos correspondientes sobre propiedad y situación física y jurídica de las mismas.

La inclusión de estas fincas en el Fondo de Suelo Agrario se producirá previo Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de aceptación de la cesión ofrecida, según lo dispuesto en este Decreto Foral y en las condiciones particulares que en su caso se especifiquen.

5. El uso y explotación de bienes demaniales de titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia o que hayan sido cedidos a la misma por cualquier título, susceptibles de uso agrícola, se efectuará mediante adscripción al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural para integración al Fondo de Suelo Agrario por resolución del órgano competente de

xedatutakoarekin bat etorriz, eta bertan zehaztuko dira foru dekretu honen arabera araututako xedearekin bat haientzat aginduzkoak izango diren baldintzak, eskubideak eta betebeharrak.

la misma, conforme a lo dispuesto en los artículos 62 y siguientes de la Norma Foral de Patrimonio y en la misma se determinarán las condiciones, derechos y obligaciones que regirán las mismas de conformidad con el destino regulado en este Decreto Foral .

6. Jabeak edo titularrak lagatako lurrak berreskuratu ahal izango ditu, edozein momentutan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsari eskatuta; baina, lurrak hirugarren batzuek adjudikaturik badituzte, adjudikazioa iraungi arte ezin izango ditu berreskuratu. Eskaera Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoak ebatziko du, hilabeteko epean, gehienez.

6. El propietario o titular podrá solicitar el rescate de la cesión al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia en cualquier momento, mientras no estén adjudicados los terrenos a terceras personas, en cuyo caso no podrá hacerlo hasta la extinción de la misma. La petición será resuelta por la Oficina de Intermediación e Intervención de Suelo Agrario en el plazo no superior a un mes.

7. Lagatako ondasunak uneoro egongo dira inskribatuta jabearen izaera duen pertsonaren edo erakundearen izenean, dagokion jabetza-erregistroan (hala denean).

7. Los bienes cedidos continuarán, en su caso, inscritos en el Registro de la Propiedad a nombre de la persona o entidad que tenga la condición de propietaria.

8. Landa Garapenerako Zerbitzuak eskatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsari finkak laga dizkioten jabeek Landa Garapen Zerbitzuaren esku jarriko dituzte finka horien jabetzarekin zerikusia duten agiri guztiak, kontsulta egin ahal izateko.

8. Los propietarios cedentes de fincas al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia procederán a poner a disposición del Servicio de Desarrollo Rural y a efectos de consulta, todos los documentos que tengan que ver con la propiedad de dichas fincas.

8. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsak ez du doako lagapenik onartuko, baldin eta horrek ekar badezake lagapenaren balioa gainditzen duten kargak edo afekzioak bereganatzea.

9. El Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia no aceptará cesiones gratuitas cuando ello pueda implicar la asunción de gravámenes, cargas o afecciones que excedan del valor de la cesión.

7. artikulua. *Nekazaritzako Lurren Funtsari landa-finkak lagatzearen ondorioak*

Artículo 7. *Efectos de la cesión de fincas rústicas al Fondo de Suelo Agrario*

1. Nahiz eta jabeak edo titularrak landa-finken erabilera eta aprobetxamendua laga dizkion Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsari, Bizkaiko Foru Aldundiak finka horiek hirugarren batzuei adjudikatzen ez dizkien bitartean, jabeak edo titularrak ustiatzen jarraitu ahal izango du, bai eta landu eta hobekuntzak eta egoki deritzen jarduerak egin ere. Horrek ez du jabea salbuetsiko kontserbazio- eta mantentze-lanak egitetik.

1. La cesión de la gestión del uso y aprovechamiento de las fincas rústicas al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia se entenderá sin perjuicio de que la persona propietaria o titular pueda seguir realizando la explotación de las mismas, así como el cultivo, mejoras y demás actuaciones que considere precisas, y no la exime de efectuar las labores de conservación y mantenimiento, en tanto la Diputación Foral de Bizkaia no disponga su posterior adjudicación a terceras personas.

2. Erabilera lagata duen ustiapen edo finkaren ezaugarriei bereziki eta haren balioari eragiten dien edozein jarduketaren berri eman behar zaio Landa Garapenerako Zerbitzuari, egutegiko hogeita hamar egun lehenago, gutxienez, ezinbesteko kasuetan edo aurrez ikusi ezin diren kasuetan izan ezik. Halakoetan, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko da zer gertatu den.

2. Cualquier actuación que afecte de manera singular a las características de la explotación o finca cuya gestión fue cedida y a su valor habrá de ser comunicada al Servicio de Desarrollo Rural con una antelación mínima de treinta días naturales, para su conocimiento, salvo supuestos de fuerza mayor u otras circunstancias imprevisibles, que habrán de comunicarse en la mayor brevedad después de su acontecimiento.

3. Ezin izango zaio eskatu Nekazaritzako Lurren Funtsari suntsiaraz dezala finka baten erabilera eta aprobetxamendua kudeatzeko lagatze-kontratu bat, baldin eta hirugarren batzuekin sinatutako lagatze-kontratu horren adjudikazioa indarraldian badago.

3. No podrá solicitarse la resolución del contrato de cesión de la gestión del uso y aprovechamiento de una finca al Fondo de Suelo Agrario en caso de vigencia de la adjudicación del contrato de cesión firmado con terceras personas.

4. Kontratu bidez hitzartutako epea amaitutakoan, Landa Garapenerako Zerbitzuak jabeari edo titularrari bermatuko dio finka utzi den erabilera-baldintza

4 Finalizado el período pactado contractualmente, el Servicio de Desarrollo Rural garantizará para la persona propietaria o titular el rescate de la finca en las mismas

berberetan berrekuratzea.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsari landa-finka laga zaion denboran zehar, aldaketak egin ahal izango dira lagapenean adjudikatutako finkaren jabetzan edo titulartasunean, baina beharrezkoa izango da hirugarren batzuekin adostutako kontratua subrogatzea.

6. Landa Garapenerako Zerbitzuak etengabe eguneratuko du erregistro bat, non informazio hau adieraziko baita: non dauden kokatuta Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsa osatzen duten higiezin eta eskubide erreal guztiak, nor den haien titularra eta zer erabilera duten unean-unean. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailaren esku eta hala eskatzen duten interesdunen esku jarriko da erregistro hori, zeinak uneoro bete behar duen datuen babesari buruzko indarreko araudia.

7. Finka eta eskubideen urteko adjudikazioaren aurretik, Landa Garapenerako Zerbitzuak honako agiri hauek sartuko ditu partzela bakoitzari dagokion espedientean:

a) Udal hirigintza-zedula, partzela lurzoru urbanizaezinean dagoela eta nekazaritzarako erabil daitekeela egiaztatzen duena.

b) Dagokion espedientea izapidetzen jarraitzeko berariazko baimena emateko txostena.

c) Errentaren ebaluazioa, foru dekretu honen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat datorrena.

8. artikulua. *Adjudikazio araubidea*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsean sartutako ondasunek eta eskubideek honako erabilera hauetako bat izan dezakete:

a) Nekazaritzan ari diren emakumeak eta nekazari gazteak finkatzea.

b) Nekazaritza-ustiategi berriak sortzea, landa-guneetako exodoa eragozteko.

c) Egun martxan diren nekazaritza-ustiategiak handitzea.

d) Nekazari-herrixkak edo lursail-eremuak sortzea, bertan nekazaritza-jarduerak gauzatu ahal izateko.

e) Nekazaritza-kooperatiben lurralde-oinarria handitzea.

f) Animalia- edo landare-espezieen kontserbazioa.

g) Natura-ondarearen kontserbazioa.

2. Honako hauek eska dezakete Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Lurren Funtsean inskribatutako funtsaren barruko finken adjudikazioa:

a) Ebaluazio Batzordeak onetsitako Gaztenek prozeduran monitorizazio-fasean dauden pertsonak.

b) Instalazio-fasean dauden eta beren enpresa-planean

condiciones de uso en que se ha entregado.

5 Durante el período de la cesión al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia podrán producirse alteraciones de dominio o titularidad de la finca adjudicada en cesión, siempre que lleven implícita la subrogación del pacto contractual con terceras personas.

6. El Servicio de Desarrollo Rural mantendrá un registro permanentemente actualizado, indicando la procedencia de los bienes, la titularidad y su destino actual, de todos aquellos inmuebles y derechos reales que integren el Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia, a disposición del Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural y de los interesados que lo soliciten, sometiéndose, en todo caso, a la normativa vigente respecto a la protección de datos.

7. Previamente a la adjudicación de fincas y derechos anual, el Servicio de Desarrollo Rural y referido a cada parcela procederá a incluir en el correspondiente expediente:

a) Cédula urbanística municipal que acredite que la parcela se encuentra en suelo no urbanizable y es susceptible del uso o destino agrario.

b) Informe expreso de conformidad para la continuación de la tramitación del expediente correspondiente.

c) Evaluación de la renta conforme a lo dispuesto en el artículo 14 del presente Decreto Foral.

Artículo 8. *Régimen de adjudicación*

1. Los bienes y derechos incorporados al Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia podrán tener alguno de los destinos siguientes:

a) Asentamiento de mujeres y personas jóvenes dedicadas a la agricultura.

b) Creación de nuevas explotaciones agrarias para evitar el éxodo rural.

c) Ampliación de las explotaciones agrarias ya existentes.

d) Creación de agroaldeas o polígonos de parcelas con capacidad para soportar actividades agrarias.

e) Ampliación de la base territorial de Cooperativas Agrarias.

f) Conservación de especies animales o vegetales.

g) Conservación del patrimonio natural.

2. Podrán solicitar la adjudicación de fincas del fondo inscritas de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Bizkaia:

a) Personas inscritas en el programa Gaztenek con el proceso de Monitorización aprobado por la Comisión de Evaluación del mismo.

b) Personas jóvenes que estando en la fase de instalación y

lurralde-oinarria handitzea aurreikusia duten gazteek.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta dauden pertsonak (irailaren 27ko 203/2011 Foru Dekretuaren bidez arautu zen erregistro hori).

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Auzotasun administratiboa Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

c) Ez egotea sartuta itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan. Hala badagokio, onuradunei finka hauek adjudikatzeko, derrigorrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak emandako nekazaritzaren arloko laguntzak edo diru-laguntzak direla-eta hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta egotea.

Zehazki, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea

b) Enpresa-plana

c) NANaren fotokopia.

d) Eskatzailearen erroldatze-agiria, urte horretan bertan emandakoa.

e) Nekazaritzako prestakuntza eta esperientzia egiaztatzen dituen agiria

f) Ekoizpen-eredua egiaztatzen duen agiria:

1º Ekoizpen ekologiko ziurtatua

2º Ekoizpen integratua edo ziurtatutako kalitateari buruzko programak

3º Ustiategian eraldatzeko nekazaritza-ekoizpena

4º Zirkuitu laburren bidez merkaturatzeko nekazaritza-ekoizpena

5º Ekoizle-kooperatiba, ekoizle-elkartze edo onartutako merkataritzako laguntza teknikoko zerbitzu baten bidezko merkaturatzea

Instalazioa lehenengo aldiz egin duten pertsonei dagokienez, haiek ekoizpen-ereduaren arabera eskuratutako konpromisoen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute.

3. Nekazaritzako Lurren Funtseko finkak adjudikatzeko eskabideak Landa Garapenerako Zerbitzuan aurkez daitezke, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak zehaztutako epeetan eta eran.

Deialdiaren barruko finkak Bizkaiko Foru Aldundiaren web

que en su Plan de Empresa se haya previsto la ampliación de la base territorial

c) Personas inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Bizkaia regulado mediante Decreto 203/2011, de 27 de septiembre.

Las personas solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Vecindad administrativa en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

c) No encontrarse incurso en un procedimiento de reintegro o sancionador. En su caso, la adudicación de fincas a las personas beneficiarias quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habíendose inciado en el marco de ayudas o subvenciones en materia agraria concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia se halle todavía en tramitación.

En concreto deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Solicitud

b) Plan de empresa

c) Fotocopia DNI

d) Empadronamiento del solicitante emitido durante el año en curso.

e) Documentación que acredite la Formación agraria y experiencia

f) Documentación que acredite el modelo de producción:

1º Producción ecologica certificada

2º Producción integrada o programas de calidad certificada

3º Producción agraria para su transformación en la explotación

4º Producción agraria para su comercialización a traves de circuitos cortos

5º Comercialización a traves de cooperativa de productores/as, agrupación de productores/as o sat de comercialización reconocida

En el caso de personas que se instalen por primera vez será necesario presentar la declaración jurada de los compromisos adquiridos según el modelo de producción.

3. Las solicitudes de adjudicación de fincas del Fondo de Suelo Agrario se podrán presentar en el Servicio de Desarrollo Rural, en los plazos y forma que se determinen por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Se publicarán en la página web de la Diputación Foral de

orrian argitaratuko dira, loteka sailkatuta, ezaugarriak zehazten dituzten loteetako banakako fitxekin. Eskabide-orriaren inprimakia ere argitaratuko da, eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dena.

Eskabide-orrian, honako datu hauek adierazi beharko dira: eskatzaileen datuak; eskatzen diren deialdiaren barruko partzelak edo loteak (eranskineko ereduaren arabera) eta ), eta zein inguruabar betetzen diren hurrengo zenbakian zehazten direnetatik. Eskatzaileak, gainera, arestian aipatutako dokumentazio guztia aurkeztuko du.

Landa Garapenerako Zerbitzuak esku izango du eskabidearekin zerikusia duen nahi beste informazio eskatzeko eskatzaileei.

4. Nekazaritzako Lurren Funtseko ondasunak eta eskabideak direla-eta aurkeztutako eskabideak irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

a) ESKATZAILEA:

1. Ebaluazio Batzordeak onetsitako Gaztenek prozeduran monitorizazio-fasean dauden pertsonak ........................................ ........................................................................................................ 60 PUNTU

2. Instalazio-fasean egonik bere enpresa-planean lurralde-oinarria zabaltzea aurreikusia zuen pertsona gaztea ................ ........................................................................................................ 45 PUNTU

Aurrekoa betetzen ez bada:

1. Dedikazio esklusiboa duen pertsona onuraduna (HPL) ...... ........................................................................................................ 20 PUNTU

2. Nekazaritzarako dedikazio partzialeko pertsona ................. ........................................................................................................ 5 PUNTU

b) XEDEA

1. Ustiategi berri baten sorkuntza ............................. 10 PUNTU

2. Dagoen ustiategiaren zabalkundea ....................... 5 PUNTU

c) EZAUGARRIAK

EKOIZPEN-EREDUA

1. Ekoizpen ekologiko ziurtatua. ..................................... 5 PUNTU

2. Ekoizpen integratua edo kalitatezko programa ziurtatuak ........................................................................................................ 5 PUNTU

3. Ustiategian eraldatzeko (gutxienez ekoizpenaren % 50) nekazaritza-ekoizpena ........................................................ 5 PUNTU

4.- Zirkuitu laburren bidez merkaturatzeko (gutxienez ekoizpenaren % 50) nekazaritza-ekoizpena ................................ ........................................................................................................ 5 PUNTU

5. Ekoizleen kooperatiba baten edo ekoizleen elkarte baten edo onartutako merkaturatzeko ENS baten bidez merkaturatzeko (ekoizpenaren % 50 baino gehiago) nekazaritza-ekoizpena. ........................................................ 5 PUNTU

